

# AMILLUBI PROIEKTURAKO KOORDINATZAILE ETA DINAMIZATZAILE LANPOSTURAKO DEIALDIA

## DEIALDIA

Biolur elkarteak Amillubi proiekturako koordinatzaile eta dinamizatzaile lanpostua betetzeko deialdi bidezko hautaketa prozesua martxan jarri du. Jarraian zehazten dira lanpostuaren ezaugarriak eta “*curriculum*”-ak bidaltzeko epeak eta emaila.

## LANPOSTUA

[Biolur](#)-eko langilea izango da, [Amillubi](#) lantaldeko koordinatzaile eta dinamizatzaile lanpostuan.

**Non:** Gipuzkoan. Bulegoa Bergaran izango du, eta bilerak Amillubin (Zestoan) eta Azpeitian.

**Eskaintzen den lanaldia:** 20 ordu/asteko izango da (lanaldia zabaltzeko aukera egon daiteke epe ertainean).

**Lanaldiaren epeak:** 2025eko irailaren 15ean hasi eta 2025eko abenduaren 31an amaitu (luzatzeko aukerarekin).

**Curriculumak bidaltzeko azken eguna:** abuztuaren 31era arte.

**Curriculumak bidaltzeko helbideak:** [biolur@biolur.eus](mailto:biolur@biolur.eus) // Urteaga 21, 20570 Bergara

**Argibideentzat:** [biolur@biolur.eus](mailto:biolur@biolur.eus) / 943761447

### LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

- Amillubi lantaldearen koordinazioa eta dinamizazioa.
- Proiektuaren ikuspegi orokorraz jabetzea eta koordinazio orokorra egitea.
- Biolurreko lan taldearekin koordinazioa.

### Funtzio eta egiteko zehatzagoak

Talde eragilearen dinamizazioa (bilerak prestatu, dinamizatu, egin beharren jarraipena...).

Proiektuaren kudeaketa eta gestio lanak (emailak, telefonoa, txostenen prestatzea, ....).

Finantziario iturriak identifikatzea eta beharraren arabera kudeatzea.

Proiektuaren ordezkaritza eta komunikazio lanak (aurkezpenak, bilerak, ekimenak...)

## HAUTAGAIAREN EZAUGARRIAK

Honako bi ezagutza arlo nagusiak baloratuko dira, bai formakuntzaren aldetik, bai ezagutza praktikoaren aldetik:

- Taldeen dinamizazioan eta koordinazioan ezagutza ezinbesetekoa izango da.
- Sektoreko ezagutza orokorra izatea. Agroekologiari buruz zein Gipuzkoako nekazaritza ekologikoari buruzko ezagutza eta inplikazioa izatea.

## **Hizkuntzak**

Ahozko harremanetarako, euskara eta gaztelania ongi menderatzea, eta idatzizkoan, txostenak euskaraz eta gaztelaniaz idazteko gaitasuna izatea ezinbesteko baldintzak izango dira. Beste hizkuntzetako ezagutza eta tituluak ere baloratuko dira, bereziki frantsesa.

## **Kontuan hartuko diren bestealako baldintza edo eta ezaugarriak**

- Gidabaimena eta autoa izatea
- Lantaldea gidatu eta taldean lan egiteko gaitasuna izatea
- Formazioak emateko edo egituratzeko eta antolatze gaitasuna
- Espiritu ekintzailea eta sortzailea izatea
- Herri mugimenduetako ezagutza eta partaidetza
- Bisio estrategikoa. Etorkizuneko ikuspegia sortzeko gaitasuna
- Aliantzak sortzeko gaitasuna izatea. Harremanak eraikitzeako inizatiba
- Urola eskualdekoa izatea edo eskualdearen ezagutza izatea